

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 25eko aparteko bilkuran onartutako xedapenaren laburpena

– Erabakiak:

OGASUN, FINANTZA ETA AURRONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2019 Erabakia, urtarrilaren 25ekoa. Onestea foru arau proiektua, zeinaren bidez sortzen baitira 2/2019 kreditu gehigarria eta 2/2019 konpromiso kreditua Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuan, eta baimentzea Arabako Samaniego herrian gertatutako suteak kaltetutako makinen ordezkioak erosteko aparteko laguntza lerroa, eta horiek Batzar Nagusiei igortzea, izapidetu ditzaten.

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2019 Erabakia, urtarrilaren 25ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta suhiltzaileen erakunde autonomoaren 2018ko aurrekontutik 2019ko ekitaldira luzatu diren kredituen zehaztapen berriari eta, egoki bada, dagozkien kreditu konpromisoei.